



GOBERNU BATZARRA

2023.02.07

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Begoña Tolosa Mendia
Xabier Balerdi Tolosa
Jose M. Villanueva Telleria

Bertaratu ez den zinegotzia:
Xarles Iturbe Pasaban

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren zazpian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko urtarrilaren 31koa
2. Onartzea EULEN SA enpresari, Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzuaren berme gisa Tolosako Udalean aurkeztutako abalaren itzulpena.
3. Dekretu honen berri ematea:
2023/219 dekretua: 2022/60 eta 2022/61 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO URTARRILAREN 31KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA EULEN SA ENPRESARI, TOLOSAKO UDAL-ERAIKINAK ETA HIRI-ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN BERME GISA TOLOSAKO UDALAN AURKEZTUTAKO ABALAREN ITZULPENA.

Kontratuaren xedea: Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzua
Kontratu mota: Zerbitzua
Kontratuaren data: 2017ko otsailak 1
Bermearen zenbatekoa: 18.416,73€



Eskatzailea: EULEN, SA
Sarrera data: 2022/01/13 (sarrera zk. 2022-526)
Espedienteak: 2022H3440001

AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2017ko otsailaren 1ean, EULEN SAri esleitu zion Tolosako udal-erakinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzua.

2016ko abenduan 5ean, EULEN SA enpresak 18.416,73€ko bermea jarri zuen.

2022ko urtarrilaren 13an, EULEN SAk (ordezkaria: Antonio Rufo Gomez), jarritako bermea itzultzeko eskaera egin zuen.

Aurkeztutako eskaeraren aurrean, 2022ko maiatzaren 11n, obra eta mantenuko teknikariak txostena egin zuen eta, laburbilduz, honakoa dio: "(...)"

ADIERAZTEN DUT

Esleipendunak kontratua behar bezala bete duela, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan ezarritako baldintza guztiak bete dituela, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete dela.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duena, xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako behin betiko bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut. (...)"

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107., 111. eta 243.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 65. eta 169. artikulua.

II. Kontratazio organoari dagokio kontratistak jarritako behin betiko bermea itzultzea (9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Tolosako Udalari dagokionez,



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0003

eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio, hortaz, organo horri dagokio jarritako behin betiko bermea itzultzeko onespena ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

Aintzat harturik aurretiaz esandakoa, adierazi daiteke espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola; beraz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratazio organoari dagokio aurkeztutako abala itzultzeko erabakia hartzea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariak egindako txostena eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea EULEN SA enpresari (A.R.G. ordezkari duena), Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzuaren berme gisa Tolosako Udalean aurkeztutako abala itzultzea, bere kopurua honakoa delarik: hemezortzi mila eta laurehun eta hamasei euro eta hirurogeita hamairu zentimo (18.416,73€).

BIGARRENA.- Erabaki hau Udaleko Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari zein interesdunari jakinaraztea.

3. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2023/219 DEKRETUA: 2022/60 ETA 2022/61 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2022/219 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorruta eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0003

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hauek:

60. zenbaki duena, 912,05 eurokoa.

61. zenbaki duena, 396.962,42 eurokoa.

Zerrenda hauetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

60. zenbaki duena, 912,05 eurokoa.

61. zenbaki duena, 396.962,42 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0003-2023-02-07 Gobernu batzarra akta/2023-02-07 Gobernu